| JASOTZAILEA<br>*DESTINATARIO* | Guztira<br>*Total* | 2001<br>*2001* | 2002<br>*2002* |
|---|---|---|---|
| SEITRA, S.A. | 1.460.000 Pezeta<br>8.774,78 Euro | _ | 1.460.000 Pezeta<br>8.774,78 Euro |
| SUSPERGINTZA ELKARTEA | 2.160.000 Pezeta<br>12.981,86 Euro | 1.330.000 Pezeta<br>7.993,46 Euro | 830.000 Pezeta<br>4.988,40 Euro |
| TROKELAY, S.A. | 1.230.000 Pezeta<br>7.392,45 Euro | _ | 1.230.000 Pezeta<br>7.392,45 Euro |

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

## Zk-6088

AGINDUA, 2001eko irailaren 26koa agindua, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena, Hondarribiko udalerriari dagokionean, «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziaren» espedientea behin betiko onartzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuordetzak sustatu duen eta Hondarribiko eta Irungo udalerrietan eragina duen «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziaren» espedientea aztertu da.

GERTAKARIAK

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren 1993ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez hasierako onespena eman zitzaion «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziaren» espedienteari eta, horrenbestez, espedientea jendaurrean jartzea eta entzunaldia ematea erabaki zen. Aurkeztutako arrazoibideak ikusirik, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren Agindu bidez espedientea berriro ere jendaurrean jartzea erabaki zen.

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren 1994ko uztailaren 29ko Agindu bidez behin betiko onespena eman zitzaion espediente honi, Irungo Udalari dagokionean. Hondarribiko udalerriari dagokionean, berriz, behin betiko onespena bertan behera utzi behar izan zen; izatez, Plan Bereziaren zehaztapenak Udalak hasiera batean onartutako Arau Subsidiarioen dokumentuarekin bat zetozen arren, ez zetozen bat orduan udalerri horretan indarrean zegoen plangintzarekin.

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

## N°-6088

ORDEN de 26 de septiembre de 2001, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se aprueba definitivamente el Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Txingudi, en la parte recayente en el termino municipal de Hondarribia.

Visto el expediente de «Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Area de Txingudi», promovido por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, que afecta a los municipios de Irun y Hondarribia.

ANTECEDENTES

Mediante Orden del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente de 18 de noviembre de 1993, se aprobó inicialmente el expediente de «Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Area de Txingudi» sometiéndolo al trámite de información pública y audiencia. A la vista de las alegaciones presentadas, mediante nueva Orden del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, se acordó abrir un nuevo período de información pública.

El expediente fue aprobado definitivamente mediante Orden del Consejero de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente de 29 de julio de 1994, en la parte correspondiente al Ayuntamiento de Irun, suspendiéndose la aprobación definitiva en la parte correspondiente al municipio de Hondarribia porque aun cuando las determinaciones del Plan Especial eran conformes con el documento de Normas Subsidiarias aprobado inicialmente por el Ayuntamiento, contravenían el planeamiento vigente en aquel momento en el referido municipio.

1996ko abenduaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez behin betiko onespena eman zitzaien Hondarribiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioei.

Ingurugiro Sailburuordetzak «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Berezia», Hondarribiko udalerriari dagokionean, berriro formulatu zuen 2000. urteko martxoan eta horretarako Hondarribiko Arau Subsidiarioetan aurreikusten diren zehaztapenei jarraitu zien.

Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiaren txostena aztertu ondoren Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak 2000ko azaroaren 9ko Agindu bidez Plan Berezia, Hondarribiko Udalerriari dagokionean, berriro ere jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Jendaurrean jartzeko erabakia gauzatzeko bidezko iragarkiak ezarri ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2001eko urtarrilaren 9an eta 12an hurrenez hurren, eta 2000ko abenduaren 30eko «El Diario Vasco» egunkarian.

Jendaurrean jartzeko aldia amaitu ondoren eta 1976ko Lurraren Legearen Testu Bateginaren 41. artikuluan ezarritakoari jarraituta, Hondarribia eta Irungo Udalei zein Gipuzkoako Foru Aldundiari entzuteko izapidea bete zen eta Administrazio hauek ez zuten inolako idatzirik aurkeztu xede horretarako finkatutako epean.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren 2001eko maiatzaren 18ko Agindu bidez behin-behineko onespena eman zitzaion «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziaren» espedienteari, Hondarribiko udalerriari dagokionean. Dena den, aldaketa bat egin zen espedientearen nekazaritza-babespeko espazioei buruzko III.2.2. ataleko jardun-norabideetan: mendi-mazeletan eta ibarretan ur-bazterreko espezieekin basoak eta zuhaiztiak eratzearen aldeko erreferentzia barne hartuko da.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldeko iritzia eman dio espediente honi 2001eko ekainaren 29an egin zen Gipuzkoako Plangintzako Sekzioaren 5/2001 bilkuran. Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak ere aldeko iritzia eman dio 2001eko abuztuaren 1eko txosten bidez, bertan baldintza gisa bideratzen ari den mugaketaren irudikapena dokumentazio grafikoan jasotzea ezartzen da.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lurraren araubide eta hiri antolaketaren arloko presako neurriak zehazteari buruzko martxoaren 6ko 5/1998 Legearen 4.3. artikuluaren indarrez, espediente honen izapideak Eusko Jaurlaritzari dagozkio, Lurral-

Mediante acuerdo del Consejo de Diputados de 24 de diciembre de 1996 se otorgó la aprobación definitiva a las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Hondarribia.

La Viceconsejería de Medio Ambiente reformuló el Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Area de Txingudi», en la parte correspondiente al municipio de Hondarribia en marzo del año 2000, siguiendo las determinaciones previstas en las Normas Subsidiarias.

Mediante Orden de 9 de noviembre de 2000 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previo informe de la Dirección General de Costas, se dispuso abrir un nuevo período de información pública del Plan Especial, en la parte correspondiente al municipio de Hondarribia.

El acuerdo de información pública se hizo efectivo mediante la inserción de los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial del País Vasco y Boletín Oficial de Gipuzkoa de 9 y 12 de enero de 2001, respectivamente, y en el diario «El Diario Vasco» de 30 de diciembre de 2000.

Una vez finalizado el período de información pública, de conformidad con lo establecido en el artículo 41 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976, fue sometido al trámite de audiencia a los Ayuntamientos de Hondarribia e Irun, así como a la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin que ninguna de dichas Administraciones remitieran escrito alguno en el plazo concedido al efecto.

Mediante Orden de 18 de mayo de 2001 del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente se otorgó la aprobación provisional al expediente de «Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Area de Txingudi», en la parte recayente en el término municipal de Hondarribia, introduciendo la modificación relativa a que en las «Directrices de actuación» del apartado III.2.2.– Espacios sujetos a Protección Agrícola» se incluirá la referencia a favorecer la formación de bosques y bosquetes con especies de ribera en laderas, además de en vaguadas.

El presente expediente ha sido informado favorablemente por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en la sesión 5/2001 de la Sección de Planeamiento de Gipuzkoa celebrada el 29 de junio de 2001, así como por la Dirección General de Costas mediante informe de fecha 1 de agosto de 2001, que incluye como condición que en la documentación gráfica se recoja la representación del deslinde en tramitación.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

En virtud del artículo 4.3 de la Ley 5/1998, de 6 de marzo, de medidas urgentes en materia de régimen del suelo y ordenación urbana, corresponde al Gobierno Vasco, a través de este Departamento de Ordenación del

de Antolamendu eta Ingurugiro Sailaren bitartez; izatez, Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen garapenean formulatutako Plan Berezia da eta, gainera arlo honetan dagozkion aginpideak gauzatzeko hala izatea beharrezkoa da.

Espediente honek ondoko helburu nagusiak ditu: Txingudiko Alorreko errekurtso naturalak babestea; ahal den neurrian erabilera tradizionalak bateragarri egitea; dagoeneko finkatuta dauden lurraren erabileraren ondoriozko eraginak bere gain hartzea eta murriztea, ekonomia- eta gizarte-arrazoiengatik hauek ezabatzea gomendagarria ez den kasuetan; jendeak eremu honetako natur balioetaz goza dezan bultzatzea; eta ingurumen-arloko ikerketa eta hezkuntzako jarduerak sustatzea eta programatzea.

Plan Bereziaren dokumentuaren zehaztapenek hirigintza-estaldura dute Hondarribiko Arau Subsidiarioetan. Bertan Planaren xede den esparrua Interes Naturalistikoko kalifikazio orokorra duen 70 zenbakiko HIA gisa (Txingudi-Jaizubia) barne hartzen da eta bere antolamendua Plan Berezi batean gauzatzea ezartzen da. Gainera, Plan Bereziaren esparruan Irun-Hondarribia errepidearen eta Itzaberri HIAren artean dagoen Kosta ibarraren eremua ere barne hartzen da. Eremu honek ere Interes Naturalistikoko eremuaren kalifikazio orokorra du eta 1996ko abenduaren 26ko Diputatuen Kontseiluak Hondarribiko Arau Subsidiarioak behin betiko onartzen zituen erabakiaren indarrez barne har daiteke Plan Berezian; izatez, bertan ezartzen zenaren arabera Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziak Arauetan kalifikatutako eremua alda zezakeen eta honen barruan nekazaritza babesteko eta babes bereziko eremuen kalifikazio xehekatua barne hartzen zen.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak eta aplika daitekeen legeria aintzat hartuta, ondokoa

XEDATZEN DUT:

1.– Hondarribiko udalerriari dagokionean, «Txingudiko Alorreko Errekurtso Naturalak Babesteko eta Eratzeko Plan Bereziaren» espedientea behin betiko onartzea.

2.– Ingurumen Sailburuordetzak bideratzen ari den mugaketaren irudikapena jaso beharko du dokumentazio grafikoan, espedientea bideratzearren.

3.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.– Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango

Territorio y Medio Ambiente, la tramitación de este expediente, por tratarse de un Plan Especial formulado en desarrollo de Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal y que resulta preciso para el ejercicio de las competencias que por razón de la materia le están atribuidas.

Este expediente tiene por objeto fundamentalmente proteger los recursos naturales del Area de Txingudi; compatibilizar, en la medida de lo posible, los usos tradicionales; asumir y minimizar los impactos derivados de usos del suelo ya consolidados en los casos cuya eliminación sea desaconsejable económica y socialmente; facilitar el disfrute público en los valores naturales de la zona e impulsar y programar actividades de investigación y educación ambiental.

Las determinaciones del documento de Plan Especial gozan de cobertura urbanística en las Normas Subsidiarias de Hondarribia al incluirse el ámbito objeto del Plan como Area de Intervención Urbanística n.º 70 (Txingudi-Jaizubia) con la calificación global de Zona de Interés Naturalístico y remitiéndose su ordenación a un Plan Especial. Además, se incluye en el ámbito del Plan Especial la zona de la vega de Kosta comprendida entre la carretera Irún-Hondarribia y el A.I.U. Itzaberri, zona que también tiene la calificación global de Zona de Interés Naturalístico y cuya inclusión tiene cobertura urbanística en el Acuerdo del Consejo de Diputados de 26 de diciembre de 1996, mediante el que se otorgaba la aprobación definitiva a las Normas Subsidiarias de Hondarribia, en el que se establecía que el Plan Especial de Protección y Ordenación del Area de Txingudi podría alterar puntualmente el área calificada por las Normas, estableciendo dentro de la misma las calificaciones pormenorizadas de Areas de Protección Agrícola y de Protección Especial.

Vistos los informes emitidos por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y por la Dirección General de Costas, así como la legislación de aplicación,

DISPONGO:

1.– Aprobar definitivamente el expediente de «Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Area de Txingudi», en la parte correspondiente al municipio de Hondarribia.

2.– Por la Viceconsejería de Medio Ambiente deberá recogerse en la documentación gráfica la representación del deslinde en tramitación, a efectos de diligenciación del expediente.

3.– Publicar la presente Orden en los Boletines Oficiales del País Vasco y del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

4.– La presente Orden es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso contencioso-administrativo ante la Sala

zaio Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Sailari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Aldez aurretik eta hala nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Agindua eman duen Organoari, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Kasu honetan berraztertzeko errekurtsoa espresuki ebazten den arte edo bere ustezko gaitzespena gertatu arte ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko irailaren 26a.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Con carácter previo y potestativo podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo Órgano que ha dictado la Orden, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación. En este caso no se podrá interponer el recurso contencioso-administrativo hasta que se resuelva expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de septiembre de 2001.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## Zk-6089

EBAZPENA, 2001eko urriaren 1ekoa, Ingurugiro sailburuordearena, Busturia udalerriko Axpe auzoan Retevisión Móvil S.A.k sustatzen duen telefonia mugikorreko 3 PVAR 0647 estazio nagusirako proiektuak Ingurumenaren gainean duen Eraginari buruzko Deklarazioa egiteko dena.

Ekainaren 28ko 1302/1986 LED, Ingurugiro Eraginaren Ebaluaketari buruzkoa, eta irailaren 30eko 1131/1988 EDa betez, horien eranskinetan jasotako obra, instalazio edo beste edozein jarduera gauzatzeko proiektu publiko zein pribatu, Ingurugiroaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Jardunbidepean jarri beharko dira. Ondorioz, eta aipatutako jardunbideari eta, era berean, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren egitura organikoa ezartzen duen uztailaren 28ko 160/2000 Dekretuari jarraituz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Sailburuordetzari dagokio ingurumena eta natura baliabideak babesteko ezarri behar diren baldintzak jasoko dituen Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Deklarazioa adieraztea. Retevisión Móvil S.A. enpresak Busturian sustatu duen telefonia mugikorreko 3 PVAR 0647 estazio nagusirako proiektuak Ingurumenaren gaineko Eraginari buruz indarrean dagoen araudia bete behar duenez, eta udal lizentzia lortzeko jardunbidearen esparruan, honako izapide hauek gauzatu dira, besteak beste:

## N°-6089

RESOLUCIÓN de 1 de octubre de 2001, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del proyecto de la estación base de telefonía celular 3 PVAR 0647, promovida por Retevisión Móvil, S.A., en el barrio de Axpe, en el término municipal de Busturia.

De conformidad con el R.D.L. 1302/1986, de 28 de junio de Evaluación de Impacto Ambiental y R.D. 1131/1988, de 30 de Septiembre, los proyectos públicos o privados consistentes en la realización de obras, instalaciones o de cualquier otra actividad comprendida en sus anexos, deberán someterse al Procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental. En consecuencia, y en virtud del citado procedimiento y de acuerdo, asimismo, con el Decreto 160/2000, de 28 de julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente corresponde a la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente formular la Declaración de Impacto Ambiental en la que se determinen las condiciones que deben establecerse en orden a la adecuada protección del medio ambiente y los recursos naturales. Dado el sometimiento a la normativa vigente sobre Evaluación de Impacto Ambiental del proyecto de la estación base de telefonía celular 3 PVAR 0647, promovida por Retevisión Móvil, S.A., en el término municipal de Busturia, se ha procedido en relación con el mismo, y en el marco del procedimiento destinado a la obtención de la licencia municipal, a formalizar, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan: